

Arratia

"Bidean Gagoz"

15. zk.

2 0 0 8 k o a b e n d u a

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria



Arratia



GAIKAKO BILKETARAKO ZERBITZU BERRIAK

Arratiako Agenda 21n helburu nagusietako bat birziklatzen den hondakin kopurua gehitzea da, eta pixkanaka birziklatu daitekeen guztia birziklatzerainoko puntura heltzea. Gaikako bilketa funtsezkoa da prozesu honetan eta horregatik berau bultzatzeko neurriak hartu dira. 2009ko urtarriletik aurrera, Arratiako Udalen Mankomunitateak gaikako bilketarako zerbitzu berriak jarriko ditu martxan, horietatik aipagarriak dira:

- Ehunen bilketarako kanpoko edukiontzia.

Edukiontzi honetan, erabilitako arropa, oinetakoak, osagarriak... utzi daitezke.

- Etxeko olio begetal erabilia biltzeko kanpoko edukiontzia.

Orainarteko zerbitzu mugikorra (furgoneta) ordezkatuko du eta zerbitzu finkoa izatean edozein momentutan erabiltzeko aukera ematen du. Erabilitako olio ondo itxitako plastikozko ontzietan joan behar da, plastikozko botelak edota beste edozein ontzi arin.

- Pilak jasotzeko kanpoko edukiontzia.

Edukiontzi honek pila arruntak, botoi-pilak eta telefono mugikorren bateriak uzteko lekua izango du.

ARRATIAKO TOKIKO AGENDA 21N WEB ORRIA

www.arratia21.org Arratiako tokiko Agenda 21etaz informatzen duen web orrian zera aurkitu dezakezu:

- Arratian iraunkortasunaren alde sortzen diren jardueren albisteak.
- Arratiako herrietako Tokiko Agenda 21n dokumentu nagusiak.
- Arratia 21 aldizkariako ale guztiak.
- Eskola Agenda 21eko dokumentuak.
- Gaiarekin lotutako helbide jakingarriak.

Baita ere:

- Foru Birtualean parte hartu dezakezu.
- Autoa konpartitzeko zerbitzua erabili dezakezu.
- Argazki albumean argazkiak ikusi eta zintzilikatu ditzakezu.

Hau guztia eta gehiago zure esku:

www.arratia21.org

Behin bat botaitozu!

Bi ekintza Arratiako mugikortasun iraunkorragorako



GIDARITZA IRAUNKORRAGORAKO IKASTAROA

Energia aurrezteko teknika errazak

Arratiako herri askotan gidaritza iraunkorragorako doako ikastaroak ari dira ematen azaroko eta abenduko hainbat larunbatetan.

Helburua energia aurrezteko balio duten teknika erraz batzuek ikastea da. Energia aurrezten da ibilgailuaren erregai kontsumoa jeisten delako, eta era berean gidariaren segurtasuna areagotzen da eta inguruko airearen kalitatea hobetzen da CO₂ igorpenak gutxitzean.

Zerbitzu hau era finkoan ematea nahi da, ikastaroak antolatuz izena ematen duten lagunen kopuruaren arabera.

**Parte hartu nahi baduzu deitu
Garantxe Autoeskolara**

Tfno.: 94 673 71 32 / 656 75 56 07

edota zure izena eman Udaletxean



AUTOA KONPARTITU

www.arratia21.org –n on line zerbitzua autoa konpartitzea nahi duten lagunentzat

Arratiako Tokiko Agenda 21n berri ematen duen Arratia 21 web gune berriak, beste lagun batzuekin autoa konpartitzea ahalbidetzen duen zerbitzua jartzen du herritarren eskura, besteak beste.

Antzeko ibilbideak egiten dituzten eta autoa konpartitu nahi duten pertsonentzako on-line zerbitzu bat da hau. Lanera edota unibertsitatera joateko bidaiak dira elkarrekin egin daitezkenak edota beste mota bateko bidaiak ere bai, atzerriara, kanpoko hirietara...

Zerbitzu honen gizarte eta ingurumen abantailak

- Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurri finkoak zabaltzeko aukera ematen du.
- Ibilgailuaren arazoizko erabilera bultzatzen du, airearen kalitatea hobetzen du, baliabide energetikoen kontsumoa eta gas igorpenak gutxitzen ditu.
- Auto pribatuaren erabilera arazoizkoa eta eragin-korra izan dadin errazten du.

LEMOA. TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO UDALSAREA 21 SARIEN irabazle OINEZBUSA PROIEKTUAN



Zer da Tokiko Iraunkortasunerako Udalsarea 21 saria?

Lemoak Tokiko Iraunkortasunerako Udalsarea 21 saria irabazi dau Oinezbusa proiektuarekin. Sari hauen helburua, tokiko garapen iraunkorraren arloan ekimen ereduagarriak abian dituzten Udalsarea 21en udalerrri kideen lana baloratzea da.

Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sareak (Udalsarea 21) bere idazkaritza tekniko IHOBEn bidez, finalista batzuk izendatu zituen, haien artean Lemoa, beti ere sarearen helburu estrategikoak aintzat hartuta: tokian-tokian iraunkortasuna sustatzea eta iraunkortasunaren aldeko jardunbide egokiei dagokionez, nazioarteko erreferente bilakatzea.

"Iraunkortasunerako heziketa" atalean saridun

Udalsarea 21 osatzen duten udalerrriak finalisten artean bozkatu ahal izan zuten irabazlea erabakitzeko. Horrela ba Oinezbusa "Iraunkortasunerako heziketa" kategoriako sariduna izan da, proiektu honek arlo honetan dituen onurengatik. Bestek beste, bide heziketa lantzea, lagunartean egotea, kirola egitea eta ingurugiroa zaintzea.



OINEZBUSA, eskola umeentzako eguneroko zerbitzua

Oinezbusa "oinezko autobusa" da bere izenak dioen moduan. Bertan, umeak eskolara eramaten dira oinez etetik gertuen duten geltokitik hasi eta eskolaraino, beti ere gutxienez pertsona heldu batek zuzenduta. Guretzat zerbitzu berria den arren Europako zenbait herrialdetan walking bus bezala ezagutzen da eta guztiz finkatuta dago, Britainia Handian edota Australian, kasu.

2006ko mugikortasunaren astean hasi zen zerbitzu hau esperientzia pilotu bezala Arratiako hainbat herrialdetan. Izandako arraskasta kontuan hartuta Lemoak zerbitzu finko gisa antolatu zuen. Areatzan ere zerbitzu finkoa da Oinezbusa.



Lemoako umeak oinezbusean.



Areatzako umeak oinezbusean.

HONDAKINEN BIRZIKLAPENA

Arratia

BIRZIKLATZEKO EDUKIONTZIAK

Ondo erabili ba al dakizu nola?

■ Dakizuen moduan, hondakin birziklatuen kopurua handitzea da Arratiako Agenda 21eko helburu nagusietako bat, eta horretarako, funtsezkoa da gaiako bilketaren prozesua. Bertan, herritarren esku uzten dira gaika birziklatzea ahalbidetzen duten hainbat edukiontzi, eta helburua, edukiontzi hauek ahalik eta gehien erabiltzea eta hori zuzen egitea da. Zeregin horretan laguntzeko gidatxoa luzatzen dizuegu horrialde hauetan.



HONDAKIN ORGANIKOEN EDUKIONTZIAN	
BAI	EZ
Janari-hondarrak Sueteko paper lohia Fruitu lehorren, arrautzen eta itsaskien koskolak Kortozko tapoak Lur eta errauts hondar txikiak Birziklatu ezin diran beste hondakin batzuk	Erropa Botikak Pilak Orioak, zura, pinturak, bernizak, zirak, aerosolak Garbiketarako produktuak
Gomendioa: Bota hondakinak behar dan moduan itxitako boltsetan eta beharrezko ordutegietan.	



EDUKIONTZI BERDEAN (Iglu-motakoan)	
BAI	EZ
BEIREA Edozein koloretako beirazko botilak Beirazko poteak Kontserba-ontziak Kosmetika eta lurrungintzako poteak	KRISTALA Autoetako kristalak Bonbillak Espiluak Leihoetako kristalak Hodi fluoreszenteak (Horreek guztiak Garbigunetara eroan behar dira)
Gomendioa: Kendu beirazko ontzien tapak, edukiontzira bota baino lehen.	



EDUKIONTZI URDINEAN	
BAI	EZ
Egunkariak eta aldizkariak Publizidadea Kartoizko kutxak Kartoizko arrautzontziak Paperezko boltsak	Brikak Txizoihalak Paper lohiak edo argizari-paperak, metalizatuak edo plastifikatuak
Gomendioa: Tolestu kartoia, edukiontzira bota baino lehen. Ez itxi kutxarik edukiontzitik kanpo.	



PILEN EDUKIONTZIA (Kanpoko)	
BAI	EZ
Pila arruntak Botoi-pilak Telefono mugikorren bateriak	Beste edozein hondakin
Gomendioa: Pila mota bakoitza dagokion lekutik bota. Kanpoko edukiontziaz gain, pilak saltzen dabezan dendetan, udaletxeetan eta beste eraikin publiko batzuetan honeek batzeko edukiontzi txikiak dagoz.	



ETXEAN ERABILITAKO ORIORAKO EDUKIONTZIA (Kanpoko)	
BAI	EZ
Etxean erabilitako landare-orioa	Orio mineralak, kotxeenak, beste edozein hondakin...
Gomendioa: Gorde orioa plastikozko ontzietan eta ondo itxi edukiontzira botatzeko. Datorren urtearen hasieratik aurrera, orain arte egon dan zerbitzu ibiltariaren orde, kalean ipiniko diren edukiontzi finkoak erabiliko dira. Bertan, etxean erabilitako orioa, plastikozko edozein ontzitan botatzeko aukera eukiko dozu (beti ere ondo itxiak).	

HONDAKINEN BIRZIKLAPENA

ERROPA ERABILIA BILTZEKO EDUKIONTZIA	
BAI	EZ
Erropa erabilia Oinetakoak Mantak, izerak, toailak, edredoiak, zapiak, mantelak... Osagarriak: boltsoak, karterak, gerrikoak...	Alfonbrak Beste edozein hondakin
Gomendioa: Erropa erabilia boltsa itxietan bota.	

EDUKIONTZI BEILEGIAN	
BAI	EZ
 <ul style="list-style-type: none"> • Metalezko ontziak • Brikak • Janarien plastikozko ontziak • Norbere garbitasunerako eta bestelako garbiketarako produktuen plastikozko ontziak • Plastiko eta aluminiozko boltsak eta bilgarriak 	<p>Metalezko ontziak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edarien latak (garagardoa, freskagarriak); Kontserba-latak, Aerosolak (desodorantea, lakea, suetea garbitzekoak, zurari distira ateratekoak...); Aluminiozko platerak eta erretiluak (adib., prestatutako janariak); Txapak eta metalezko latak. <p>Brikak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esne, esne-gain, irabiaki, zuku, ardao, salda eta abarren brikak. <p>Janarien plastikozko ontziak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Plastikozko botilak (ura, freskagarriak, esnea, zukua, etxeko orioa, ozpina, saltsak...); Esnekien ontziak (jogurtak, flana eta esnez egindako bestelako postreak, gaztaia, gurina, margarina...); "Kortxo zurizko" erretiluak eta kaxak (ontziratuta datozen fruitarenak, barazkienak, okelarenak, oilaskoarenak eta arrainarenak, eta izozki-mueta batzukaz datozanak); plastikozko arrautz-ontziak; erabili eta botatzeko plastikozko edalontziak, platerak eta mahai-tresnak; plastikozko tapak eta tapoiak, eta abar. <p>Norbere garbitasunerako eta bestelako garbiketarako produktuen plastikozko ontziak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbere garbitasunerako produktuen plastikozko poteak (txanpua, kremak, desodorantea, hagineta pastea, gela, jaboi likidoa...); Bestelako garbiketarako produktuen plastikozko poteak (etxea garbitzekoak, lexi-ba, amoniakoa, leungarria, detergente likidoak eta hauts-detergenteak, garbiketarako sprayak...). <p>Plastiko eta aluminiozko boltsak eta bilgarriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Janarien plastikozko boltsak (esnea, izoztuak, frutak, barazkiak, moldeko ogia, opilak, pastea, lekaleak, zerealak...); Janarien aluminiozko boltsak eta ontziak (haurren janariak, zopak, pureak, aurrez prestatutako pastak, kafea, jan-arinak, fruitu lehorrak, patata frijituak, prestatutako janarien erretiluak...); boltsak (denda, supermerkatu, ikuztegi eta abarretan erositakoa eroateko emoten dabezanak...); Urdaitegiko produktuen zorroak (heste-beteak, permila, giharrea, gaztaia...); Plastikozko bilgarriak (okela, fruta, barazki eta arrainen erretiluetan etortzen dan film gardena; aldizkari, faszikulu, egunkari... asko biltzen dauzana; kartoizko eta plastikozko kutxak babes-teko erabilten dana, eta abar...); Polietilenozko film gardena edo aluminiozkoa (bikaritan erosi eta etxean janari freskoak biltzeko erabilten dana); blister-muetako enbalajeen plastikoa eta aluminioa (pilak edo bizar-xaflak babesteko enbalajeak dira).
Gomendioa: Garbitu ontziak eta ostean zanpatu euren bolumena gitxitu daiten, edukiontzira bota baino lehen	

HONDAKINAK GAIKA BATZEKO BESTE ZERBITZU BATZUK

- HONDAKIN HANDIEN GAIKAKO BILKETEA: etxetresna elektrikoak, altzariak, koltxoak, somierrak, eta abar. ETXEZ ETXEKO DOAKO ZERBITZUA. Tel.: 946311717.
- BOTIKEN BILKETEA: farmazietan.
- CD-en GAIKAKO BILKETEA: Udaletxeetan.
- IGORREKO GARBIGUNEA: hurrengo honeek gaika batzeko gunea da: obra-hondakinak, hondakin handiak, orioak, hodi fluo-reszenteak, etxetresna elektrikoak, lorazaintzako hondarrak, beirea, papera, kartoia, txatarra, plastikoak, pilak, bateriak, pneumatikoak, eta abar (etxean sortutakoak bakarrik).

Ordutegia: astelehenetik barikura 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era; zapatuetan 10:00etatik 14:00etara.

Harremanetarako telefonoa: Garbiker, 944034090.